

# **Interneten euskaraz solasteko kanala**

*Josu Perales*

*Bete du jadanik bere lehenengo urtea Interneten denbora errealean euskaraz aritzeko kanalak. Horrelako komunikazio-tresnak IRC (Internet Relay Chat) sistemaz baliatzen dira eskuarki. Eta sistema horren ezau-garria da guk geure ordenagailuan idazten duguna une hartan bertan ari dela gure solaskideeneetara iristen. Hemen eskaintzen dugun informazioa kanalaren erabiltzaile bati, Miren Alaña euskaldun berri gasteiztarrari eskertu behar diogu eta, noski, kanalaz beraz baliatu da bilketa horretarako.*

## **Sorrera eta helburua**

Kanala iazko otsailaren 14ean jarri zen abian, kanala bera eta baita horren berri ematen duten web orriak ere. Sortzailea Igor Aiestaran da, 18 urteko beasaindarra, ingeles filologia ikaslea. Sortzaile hori bera da, hain zuzen ere, erabiltzailerik gazteena. Igorrek dioskunez, Euskarak Interneten duen presentzia ez da oraindik oso zabala eta horixe da kanalaren helburua, euskararen erabilera lagunarteko giroan Interneten aragotzea. Horrelako kanal batek aukera ematen die, gainera, elkarrengandik oso urruti dauden solaskideei harremanetan egoteko. Hortaz, bada, aukera aparta da bestela euskaraz ezin jardun lezaketen horientzat denbora errealean aritzeko. Horrelako harremanak, idatzizkoak badira ere, oso hurbil daude ahozko erregistrotik, hemen ez baitago idatzizkoan egon ohi den formaltasunik.

Kanalera sartzeko Pentium prozesadorea da egokiena Pcren erabiltzaileen kasuan, 486 duten ordenagailuak ez baitira hain seguruak. Orain arte, denbora errealean aritu ahal izateko, IRC delakoa behar da (Melero, 1997) baina oso jende gutxi du IRCren berri. Erabiltzailerik gehienak *web* orriak eta posta elektronikoa ezagutzen badituzte ere, ez dira haratago joaten Internetek eskaintzen dituen gainerako baliabideetan. Hori horrela, gauzak erraztearren, solas-kanalera zuzenean sartzeko aukera jarria dute jadanik, IRC alde aurretik kargatuta egon gabe. Igorrek dioskunez, web orrien “laguntza” atalean badago testu luze xamarra IRC nola erabiltzen den azaltzen duena, baina susmoak susmo, jende asko dago posta elektronikoa erabiltzen jakin arren, termino tekniko horien aurrean kokiltzen delako edo, atzera egiten duena. Beraz, zailtasun hori kendu egin dute.

Solas-kanalera sartu eta pantailan bertan ikus dezakegu une horretan zein eta zenbat solaskide ari diren. Parrokia handiko kanaletan beti aurkituko dugu norbait; eta horixe izan liteke, hain zuzen ere, arazoa: jende gehiegi egotea. Baina euskara kanala berri xamarra da eta bisitari asko dituen arren –iazko abenduan sehieundik gora bisitari sartu ziren kanalaren web orrietan– euskara ez jakiteagatik edota euskaraz idaztera ez ausartzeagatik askoz gutxiagok hartzen dute parte solasaldietan. Horregatik gerta liteke kanalera sartu eta une horretan bertan inor ez egotea, hots, solaskiderik ez aurkitzea, horrelakoetarako gomendioa da kanala irekita mantentzea, bestela, denek hori egingo balute, kanala solaskiderik gabe egongo litzateke.

## **Erabiltzaileen profila**

Mota askotako jendeak hartzen du parte, batez ere gazteek, batzuk oso noizbehinka eta egunero beste batzuk. Bizkaiko euskaltegi batetik ere konexioa egin dute. Mirenek, erabiltzaileen profila zehaztu asmoz, bere konexioen arteko lagin bat osatu du (.1). Lagun horietxek dira aurki kanalaren zaleenak edo gehienetan azaltzen direnak

.1:

Izena	Herria	Adina	Nondik/noiz	Lanbidea
Iñigo	Zizur Nagusia (Nafarroa)	20	etxetik/egunero	Filosofia Ikaslea
Iker	Iruñea	20	ciberkafe batetik/igandeetan	Magisteritza Ikaslea
Igor	Beasain	18	etxetik/asteburuetan	Ingeles Filologia Ikaslea
Ander	Bergara	27	lanetik/asteazken zehar	Injineru teknikoa
Andoni	Arrasate	27	etxetik/noizbehinka	Biltegi batean lan egiten du
Sonia	Aramaio	25	IRC zerbitzu publiko batetik/asteazken zehar	Irakaslea
Manu	Hernani	24	-/noizbehinka	Kotxe konponketetan lan egiten du
Joseba	Ondarroa	24	-/noizbehinka	Teknikari elektronikoa
Jaione	Bilbo	+ 35	etxetik/asteburuetan	Irakaslea
Izaskun	Gordexola	19	etxetik/asteazken zehar	Magisteritza Ikaslea
Aitor	Gasteiz	21	unibertsitatetik/egunero	“Management with Accounting” Ikaslea (Galesen)
Iñigo	Gasteiz	25	unibertsitatetik/noizbehinka	“Bsc Chemistry with Environmental Chemistry “ Ikaslea eta lanean (Eskoziari)
Miren	Gasteiz	23	etxetik/asteburuetan	Psikopedagoga (langabezian eta ikaslea)
David	Bartzelona	+ 35	etxetik/asteburuetan	Irakaslea
Michael	Alemania	22	etxetik/noizbehinka	Ikaslea

Badaude euskaldun zaharrak eta berriak kanalean, euskara-maila ezberdinetakoak baina hori ez da oztopo elkarren arteko komunikaziorako. Eta dudarik gabe oso tresna baliozkoa da Euskal Herritik kanpo bizi eta euskara ikasi edota lortutako mailari eutsi nahi diotenentzat. Michael, esaterako, alemaniarra da eta München-en bizi da. Medikuntza ikasi du eta oso gustukoak ditu hizkuntzak. Hizkuntzalaritza ikasten ari da orain. Lazkaon aritu zen, barnetegian, euskara ikasten eta kanalaren bidez lagunak egin ditu, eta orain posta elektronikoaz ere komunikatzen da horiekin. Berak dioenez, laguntza handia da berarentzat euskara-kanala, euskara bera ez ahazteko eta Euskal Herriko berriak ere jasotzeko, nork irabazi zuen azken bertsolari txapelketa, adibidez. Une honetan liburu bat idazten ari da, alemaniera-euskara hizkuntza-gida modukoa, alemanez Oñatiko lagun batekin batera eta non argitaratu badute jadanik. David, berriz, Bartzelonakoa da, Fisika eta Kimika irakaslea da. Soldaduzka Donostian egin zuen, Loiolan, eta auzo horretako gau-eskolan hasi zen euskara ikasten. Eginak ditu Bartzelonako hizkuntz eskola ofizialeko euskararen lehenengo hiru ikasturteak eta estimu handian dauka kanala lagunak egiteaz gain euskara lantzeko aukerarengatik. Miren eta Iñigo neba-arrebak dira, eta Aitorrekin batera aldez aurretik adosten dute konexio-ordua.

### **Kanalaren geroa**

Igorrek dioenez, asko dira munduan zehar hainbat arrazoiengatik euskaraz solastu nahi dutenak; kontua da Internet, oraindik ere, guzti-guztien eskura ez dagoela. Euskara kanala oso berria da eta erabiltzaile gutxi ditu baina, Internet sarea hedatu eta bere baliabideak ugaritu ahalean, espero izatekoa da beste euskara kanal batzuk ere sortzea eta gero eta erabiltzaile gehiago izatea.

### **Oharrak**

\* Kanalera sartzeko: <http://euskara.home.ml.org>

Era berean:

<http://www.geocities.com/Athens/Acropolis/6644>

Hona hemen, bestalde, EEBBetako euskaldunek sortutako beste bi kanal. Batez ere ingelesa erabiltzen dute:

<http://weber.u.washington.edu/~buber/Basque/Chat/chat.cgi>

<http://venus.beseen.com/chat/rooms/c/3978>

### **Bibliografia**

Melero, M. 1997. Internet eta hizkuntzen irakaskuntza. *Hizpide* 38: 58-73.